

Ez dezagun atzean inor utzi

Eskubideetan oinarritutako erantzunak eskatzen ditugu

Pobrezia eta desberdintasuna areagotzen ari dira, gero eta kronikoagoak eta latzagoak izanik. Behar-beharrezkoa da sistema aldatzea, gizartearen ehuneko bata aberats egin baina gizartea orokorrean pobrezen duen sistema delako. Baliabideak geostrategikoki kontrolatzeko gerra sustatzen duen sistema delako. Natura suntsitu eta gizarte desberdintasunak areagotzen dituen sistema delako.

Badakigu zeintzuk diren arazoak, eta egiturazko arrazoi asko ezagutzen ditugu ere. Badakigu egiazko eta bidezkoak diren konponbideak daudela, eskubideetan oinarrituak, ez interesetan.

Nazioarteko konpromisoak egon badaude, esate baterako: Garapen Iraunkorrerako Helburuak, Giza Eskubideen protokoloak, Nazioarte Lan Erakundearen (NLE) hitzarmena, edota Pariseko klima aldaketaren hitzarmena. Aipaturiko hauek betetzea beharrezkoa da guztion eskubideak bermatzeko. Aldera, konpromiso horiek ez betetzea aldaketarako egin diren ahaleginak mespretxatzea da.

Oraingo testuinguruan esku gutxiren artean pilatzen da ondasuna, eta horrek pertsona eta nazio asko pobretzen ditu. Beraz, gaur arte burututako jardute batzuk desagertzea beharrezkoa da, adibidez: Espainiar jatorria duten paradisu fiskalak, gure ongizatea, hurrengo belaunaldietako ongizatea zein planetaren ongizatea hipotekatuko duten negoziaketak merkataritza hitzarmenen inguruan, esate baterako: TTIP, CITA edo TISA.

Krisi anitz existitzen dira, larrienetariko bat balioen inguruko krisia izanik. Politika buruek eta agintariak etengabe erakusten dute gauzak aldatzeko erantzukizun zein borondate falta. Bereziki lotsagarria da migratzaile zein iheslari egoera eskatzen ari diren pertsonen kasua, harresi baten kontra talka egiten dute, konponbideak topatu beharrean.

Egoera honi aurre egiteko, herritarrok justizia soziala eta ingurumena hizpide duten politikak eskatzen ditugu:

- Giza eskubideekin eta ingurumenaren babesarekin bat datozen politikak planeta osoan.
- Herritarrek jakin gabe negoziatu diren nazioarteko merkataritza hitzarmenak gaitzetsi, demokrazia mehatxatzen dutelako, multinazionalen boterea areagotzen dutelako, pertsonen eskubideak murrizten dituztelako eta ingurumenaren babesa gutxitzen dutelako.
- Zerga justizia bidezko, behar adinezko eta mailakatua den zerga politikoen bitartez, zeinak politika sozial eta ingurumeneko politikak mantentzen dituzten.
- Eredu energetiko iraunkor baterako trantsizioa eta eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak betetzea eskatzen dugu.

Azken finean, Garapen Iraunkorrerako Helburuak eskuratu nahi baditugu, beharrezkoa da norabide horretara zuzentzen duten politikak egitea. Honetan ere Estatuak eragin dezake, baita autonomia erkidego guztiek ere, Nafarroa barne, non autonomia eredugarria izateko aukera dugun.

Ez dezagun atzean inor utzi

Eskubideetan oinarritutako erantzunak eskatzen ditugu

Gizarte Erakundeen Plataforma (GEP) ordezkatzuz:



*La Plataforma de Entidades Sociales (PES) está compuesta por las siguientes redes que a su vez agrupan a más de 160 organizaciones:

1. Coordinadora de ONGD de Navarra / Nafarroako GGDEen Koordinakundea (CONGDN)
2. Red de Economía Alternativa y Solidaria / Ekonomia alternatibo eta elkartasunezkoaren sarea (REAS)
3. Red de Lucha contra la Pobreza y Exclusión Social de Navarra / Nafarroako Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren kontrako Sarea
4. Comité de Entidades Representantes de Personas con Discapacidad de Navarra / Desgaitasunaren bat duten pertsonen erakunde ordezkarien Nafarroako Batzordeak (CERMIN)